

# BERBAROTARRA 14. zk. 1997ko uztaila

## Euskara zerbitzua dela eta

Ikusiko zenuten Berbarok bultzatu eta Durangoko 11 elkartek elkarlanean egin dugun kanpaina. Durango osoan zabaldu dugu udalean euskara zerbitzu baten beharra. Kanpaina batoratu dugu eta benetan oso arrakastatsua izan dela esan genezake.

Komunikabideak gure eskaria aineratu dute guk pentsatu bezala eta udalean ordezkaritza duten alderdiengan eragina izan duela somatu dugu gerora izan ditugun elkarrizketetan. Kritika asko egin digute alderdiek, Berbarori eta ez beste elkartei. Batzuk kanpainari buruzkoak, baina gehienak gure elkartearen eguneroko lanaren ingurukoak.

Guk batzuk ez ditugu ulertzen edo eta ez ditugu onartzen, baina derrigorra iruditzen zaigunez Durangar guztiekin

lan egitea. Zuzendaritzan eztabaidatu dugu eta datorren ikasturteari begira alderdiekin harreman finkoak



izaten ahaleginduko gara.

Euskara zerbitzuaren gaiari berriz helduz, hil honetan udalean sarrera emango diogu gure eskariari eta baliteke hil honetan bertan erabakiren bat hartzea. Guk ez dugu kanpainarekin jarraituko erabakia zein den jakin arte eta bestelako ekimenei helduko diegu, beharizana dago eta.

## 8. urteurrena

Berbarok 8 urte bete dituela eta, lau ekitaldi antolatu genituen. "Euskara Zerbitzua zer den" azaltzeko presatutako hitzaldiak 40 lagun batu zituen. Ordu bi egon ginen zerbitzu batek zer egin behar duen entzuten, ze onura ekarri dakioken herriari, nola



funtzionatzen duen eta abar. Bigarren ekitaldia, ostegunean egin behar zena, hurrengo ostegunera arte atzeratu zen Xabier Montoiaren taldekide bat gaixotu egin zelako. Baina zortzi egunera pentsatu baino

arrakasta handiagoa izan zuen. Denbora onak ere animatu zuen eta jende ugari agertu zen.

Bertso afarira, osterara, ez zen jende askorik etorri. Oso giro onean afaldu genuen eta saioa ere ez zen makala izan.

Eta azkenik, zapatuan mus txapelketa ospatu zen eta 40 lagunek parte hartu zuten.



# BAGABILTZA BAGABILTZA

## Mediku euskaldunen kanpaina:

Mediku euskaldunen kanpaina irailera arte atzeratu dugu. Edozelan ere, jakin ezazue denon artean egin beharko dugula indarra eskakizun hori egiteko, beraz, abisatuko dizuegu denboraz. Azkeneko Berbarotarrean esandako modura lan horretan bazkideen laguntza beharko dugu antolaketa lanetarako. Hiru hilabetekoa baino ez da izango kanpaina. Eman izana bale?

## Erazen urtebetetzea:

Maiatzean bete ditu Erazek lau urte. Zorionak emateko modukoa da ezta? Ba eman ieazkiozue, merezi dute eta. Ez da erreza astero-astero eta laguntza gutxiarekin komunikabide duin bat kaleratzea. Zorionak benetan.

## Hori da felizidadie!

Berbarok daukazan liberatu biek, Aitorrek eta Gorkak, lana fin eta gustora egiten dabe zalantzarik inork izan badau, argazkiarekin argitzen dogu erantzuna.

Gaztetxoan udalekuak aurkezteko emon eben prentsaurrekoan atara gendun argazkia. Zergaitik ete dagoz horren pozik?



## Larrosa bakarrik

Telefonikak berri on bat eman digu oraintsu. Norbere etxera bidaltzen digun fakturaren hizkuntza aukeratzeko aukera ematen du. Bi hizkuntza ofizialen artean aukeratu daiteke, baina horretarako 900131004 telefonora deitu behar duzue. Animo beraz, ia apurka-apurka euskaraz lan egiten hasten diren telefonikakoak ere.



## Txokoa aldizkariak

Jakingo duzue Durangaldean Eraz astekaria dagoen antzera Euskal Herriko herri eta eskualde askotan ere badaudela horrelakoak. Gehienak bidaltzen dizkigute eta guk txokoa jartzen pentsatu dugu, hauek dira: Bergarakoa, Elgoibarkoa, Goie aldekoa, HPSko Berripapera, Legazpikoa, Bermeokoa, Ermukoa, Errenteriakoa, Aretxabaletakoa, Bertsozaleen boletina, Aizu, Nafarroako mendialdekoa, Eibarkoa, Arrasatekoa, Hondarribikoa, Nafarroako Euskara zerbitzu batzuen, Eraz eta abar luze bat.

## Euskararen egunak

Uztailaren 7tik 11ra.  
UEU Baiona

Uztailaren 14tik 25era  
UEU Iruñea

Urriaren 5ean.  
Kilometroak Pasaia

Urriaren 19an.  
Nafarroa Oinez Tafalla


Urriaren 26an  
AEK Eguna Portugalete

Abenduan  
Egunkariaren Jaia  
Donostia

Abenduan Durangoko  
Azoka Durango

## Txokoa

Hemen dituzue azkeneko egin diren 30 bazkideak. 102 gara dagoeneko txokoko bazkide, hurrengo boletinean ere ziur beste 30 argazki atera beharra izango dugula. Badakizue edozelan ere, uztailaren 1etik aurrera sarrera-kuota 20.000 ptakoa izango dela.



# Euskaldunontzako udalekuak


**Olgetan** Guraso askok erabaki du uda honetan umeak euskara hutsean egingo diren udalekuetara bidaltzea. 75 dira guztira Oronoz-Mugairera joango diren gaztetxoak. Pozten gara horrenbeste gurasok guran konfidantza izateaz. Ez da kasualitatea iaz joandako



umeak aurten ere joateko irrikitan egotea.

Uztailaren 2an atera dira harantz autobusean ifernukoa baino eguraldi txarragoarekin. Aurten denbora txarra eginda ere ez dugu beldurrik izango sekulako etxea egongo dira eta 15 egunetan.

Udalekuetarako aurten kamiseta atera dugu "Udan be euskaraz" lemarekin eta salgai dugu nahi duzenontzat Barbaroren bulegoan.




**Bagabiz** Arrakasta gehien izan duena umeen udalekua bada ere, besteak ere kontutan hartzeko modukoak dira. Bagabiz taldekoak (13tik 15 urtera bitartekoak) mendiz-mendi **Zuberoatik Belaguara** joango dira. Tartean "bibak" egin dute, kainoiak bajatu eta beste hainbat gauza egingo dituzte. Hori ere denbora honekin ez dakigu ba... , baina gure monitore espertoekin aurkituko dute bai modua euria eta hotzari ihes egiteko.

Uztailaren 11n bertso afaria izango dute Lesakako beste gazte-talde bateko gazteekin. Bertsolariak Xabier Silveira, Estitxu Arozena, Beñat Gaztelurrutia, Igor Elorza eta Unai Iturriaga izango dira. Honek bai bizi....

**Bizikletaz** joango dira nagusiagoak, Guezan Ba!koak. Beran hasi eta Sara, Donibane Garazi, Santagrazi, Larrañe, Holtzarte, Orbaizeta, Maule eta Izabatik pasatuko dira frontoietan, elizpeetan eta hiltegiatiko aterbeetan lo eginda. Kotxe bat ere izango dute katxarroak eta motxilak eramateko.

**Guezan Ba!**



**Guezan Ba!**

Azkenik, **herriz herri antzerki emanalditxoa** emango dutenena azalduko dizuegu. Herri ezberdinetara deika ibili dira eta jaietan parte hartuko dute hankapaloekin, antzerki-txoarekin eta abar.

Lau irteera euskara hutsean eta euskara zabaltsen munduan.